



Esp. kodea: 2023DPRE0001
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2024ko Udal Aurrekontua
Hasiera data: 2023/12/12

EKONOMIA-FINANTZAZKO TXOSTENA

Udal honetako behin-behingo Kontuhartzaileak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauaren 6.3.e) artikuluari jarraiki, eta aipatutako ekitaldiari buruz aztertzen ari garen Aurrekontuaren inguruan, ondoko txosten hau egin du

TXOSTENA

Aurrekontuetan baldintza bat da, 21/2003 Foru Aginduaren 14.6 artikuluan jasotakoa, hau da, *Aurrekontu orokorreko aurrekontu bakoitzak hasierako mentsik gabe onetsi behar da. Nolanahi ere, eragiketa arrunten ziozko sarrerak gutxienez gastu arruntak eta zorren amortizazio-gastuak bat eginez sortzen den kopuruaren beste izan behar dira.*

2024rako Udalaren Aurrekontuko Proiektu bateratua OREKATUTA aurkezten da, 45.753.138,68 euroko kopuruarekin. Bere sarrera eta gastuen kapitulukako laburpen honekin batera doan eranskinean aipatzen dena da.

+ Sarrera arruntak
- Gastu arruntak
-Maileguen amortizazioak
=Emaidza positiboa da

DIRU SARRERAK

Diru-sarreraren kopuruak zehazteko erabili den irizpidea izan da:

1) 2024rako ordenantza fiskalak, orokorrean, %4 igo dira, KPIaren igoera hori izango dela aurreikusten baita.

1. Kapituluari dagokionez (zuzeneko zergak), aipatzekoa da HIRILUR OHZ partidari dagokion 2024rako aurreikuspenak izandako igoera. Kontuan izan behar da, 2023ko aurreikuspena kontzeptu horregatik 3.850.000,00 €koa zela, baina, gaurko egunez, onartutako eskubideak 4.009.014,24 €koak izan dira. Zenbateko horri erreparatuz ikusten da 2024rako aurreikuspenak %11,25 igo direla, baina orokorrean aplikatutako %4az gain, beste faktore batzuk daude aipatu igoeran, besteak beste, jarri berri den %50eko errekaragoa eta balio katastralen igoera.



Esp. kodea: 2023DPRE0001
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2024ko Udal Aurrekontua
Hasiera data: 2023/12/12

Plusbalioetan eta jarduera ekonomikoko zergetan, bestalde, %6,62 eta %5,42 igo dira, hurrenez hurren, eta, kasu honetan ere, gaurko egunez onartutako eskubideak hartu dira erreferentzia gisa, ez 2023ko hasierako aurreikuspenak, zeren eta onartutako eskubideak aurreikuspenak baino altuagoak izan dira.

Hortaz, 2023ko aurrekontuko aurreikuspenekin alderatuz, 1. Kapitulua %16,84 igo da, baina gauzatutako eskubideak kontuan izanda, aurrekontuak izandako igoera %8,31 izan da.

Bestalde, Eraikuntza, Instalazio eta Obra zergaren aurreikuspenak (2. Kapitulua) berdin mantendu dira, 2023ko berak dira, alegia; hortaz, kapitulu honetan igoerarik ez denez egon, Hirigintza aprobetxamenduak berdin mantenduak ere 2023ko zenbatekoak mantentzen dira (6. Kapitulua)

3. Kapituluari dagokionez (tasas eta bestelako sarrerak) 2023ko aurreikuspenekin alderatuz, orokorrean %6,2 igo dira.

Zenbait partida berdin mantendu badira ere, beste batzuk behera egin dute, HIRIGINTZA SANTZIOAK adibidez. Beherakada horren arrazoia da 2023 urtean aipatu partidak izandako desbiderapena aurreikuspenekiko, izan ere aurreikusita zeuden 75.000,00 €tik 14.600,00 €ko eskubideak soilik onartu dira. Hortaz, partida horrek %60ko beherakada izan du. UDAL ONDASUNETARAKO KALTEAK partidarekin gauza bera gertatzen da.

Bestalde, beste partida batzuk igoera nabarmena izan dute. Halatan, EXEKUZIO SUBSIDIARIOKO partidak adibidez, %97,45 igo da 2023ko aurreikuspenekin alderatuz. Aipatu aurreikuspenak 1.000 €koak ziren, eta onartu diren eskubideak, berriz, 24.627€ izan dira; hortaz, 2024ko sarreretan 25.000,00 € aurreikusi dira.

Igoera nabarmena izan duen beste partida bat da BIDE PUBLIKOA HARTZEA. 2023rako 60.000,00 € aurreikusten baziren ere, 159.864 €tako eskubideak onartu dira, eta, horren ondorioz, 2024ko aurreikuspenak gorakada izan du.

2) 4. Kapituluari dagokionez, 2023ko aurrekontuarekin alderatuz, %6,32ko igoera izan du. Aipatu igoera Foru Funtsean oinarritzen da, zeren eta horrek %6,94an egin du gora.

Kapitulu horretako partida gehienak berdin mantentzen dira; adierazi bezala, kuantitatiboki nabarmendu beharreko aldaketa Foru Funtsekoa da, baina badago beste partida bat ere nahiko igo dena, EJ-PRESTAKUNTZA INKLUSIBORAKO DIRULAGUNTZA partida hain zuzen ere, 79.700 €tik 118.860 €ra pasatu dena (%49ko igoera).



Esp. kodea: 2023DPRE0001
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2024ko Udal Aurrekontua
Hasiera data: 2023/12/12

3) Ondare sarreretan (5. Kapitulua) izandako igoera 500 €koa izan da orotara. Gainontzeko partidak berdin mantentzen dira 2023ko aurrekontuarekin alderatuz. Aipatu igoera BITERI PARKINEKO KONTZESIOAn eman da.

Ikusita hainbat inbertsio finantzatzeko bermatu edo ekarpen konpromisorik gabeko kapital sarrerak aurreikusi direla, ohartarazten dut sarrerak bermatu arte inbertsioa ez egitea, beti ere gastu eta diru-sarreraren oreka mantentzeko.

4) 6.kapitulua (inbertsio errealak) ez du izan inongo aldaketarik 2023ko aurrekontuarekin alderatuz. Kapitulua honetan diru-sarrerak aurreikusten dira lursail bat besterentzeagatik (1.500.000,00 €), hirigintza-aprobetxamenduengatik (100.000,00 €) eta urbanizazio-kuotengatik (150.000,00 €).

5) Kapital transferentzietan dagokionez (7. Kapitulua) beherakada izan du aurreko ekitaldiko aurrekontuarekin alderatuz, zeren eta %38,50 jaitsi da. Apatzekoa da NEXT FONDOAK partida desagertzen dela 2024ko aurrekontutik (2023an 500.000 €ko aurreikuspena zegoen). EJ-SANTA TERESA OBRA partidak ere 337.184€ko beherakada izan du (%18,98).

6) Finantza aktiboen aldaketa kapituluan (8.kapitulua), berriz, ez da inongo aldaketarik egon: 2023an eta 2024an aurreikuspen berak daude.

7) Sarrerekin bukatzeko, 2024 urtean 3.750.000,00 €ko mailegua aurreikusten da (9. Kapituluan).

Laburbilduz, kapitulua honako igoerak izan dira:

Kapitulua	Deskribapena		
1	Zuzeneko zergak	7.958.000,00	16,94%
2	Zeharkako zergak	1.000.000,00	0,00%
3	Tasak eta bestelako sarrerak	8.617.160,00	6,02%
4	Transferentzia arruntak	20.800.433,00	6,32%
5	Ondare sarrerak	284.710,00	0,18%
6	Inbertsio errealen inorengatzea	1.751.100,00	0,00%
7	Kapital transferentziak	1.501.735,68	-38,50%



Esp. kodea: 2023DPRE0001
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2024ko Udal Aurrekontua
Hasiera data: 2023/12/12

8	Finantz aktiboen aldaketa	90.000,00	0,00%
9	Finantz pasiboen aldaketa	3.750.000,00	----
	GUZTIRA	45.753.138,68	14,20%

Begi bistakoa da aurrekontua igotzen duen kapitulua 9. Kapitulua dela, maileguarena hain zuzen ere.

GASTUAK

Aurrekontuan derrigorrezko gastuei aurre egiteko kredituak kontsignatu behar dira, hala nola derrigorrez eman beharreko zerbitzuei dagozkienak, pertsonal gastuak, bulego materiala; Erakundeari ezarritako zerbitzuei aurre egitekoak, lehenago hitzartutako konpromiso eta hitzarmenen ondoriozkoak, edota aurreikusita dauden obra edota instalazioak aurrera eramateak dakartzatenak.

Gastuak, orokorrean, departamendu bakoitzak erabakitakoak dira, ondorioz ulertzen dut udalak dituen konpromisoak jasotzen dituztela.

Udalaren 2022-2024 Diru-Laguntzen Plan Estrategiko indarrean dago eta Arrasateko Udalak banatzeko asmo dituen diru laguntzak jasotzen ditu. Bertan adierazten diren diru-laguntzak, departamentu bakoitzak proposatutakoak dira. Plan estrategikoan agertzen den zenbatekoa baino altuagoa den dirulaguntza bat ematen baldin bada, aipatu plana aldatu beharko da.

Udalaren aurrekontuetako aurreikuspenak ikusirik, eta 2023 urteko aurrekontuak gaur egunera arte izandako exekuzioa aintzat hartuta, badirudi partidetan aurreikusi den kontsignazioa nahikoa izango dela ekitaldian zehar sortu daitezkeen beharriaz aurre egiteko.

Inbertsioei dagoekionez (6. Kapitulua) nabarmentzekoak dira ondorengo partida hauek:

- IÑARRA OBRAK 2.000.000,00 €
- SANTA TERESA OBRA 1.379.000,00 €
- ATLETISMO PISTA ALDATZEA 841.000,00 €
- MOJATEGIKO LED-AK 520.000,00 €

Aurrekontuan aurreikusten diren sarrerak (mailegua barne) nahikoak dira kontsignatu diren gastuei aurre egiteko. Beraz, ondorioztatzen da aurrekontuak ez dutela hasierako defizitirik.

Udalaren sarrera arruntak nahikotzat hartzen dira gastu arruntei eta kitatu gabeko maileguen amortizazioei aurre egiteko, aurrekontuaren aurrezki garbia positiboa da.



Esp. kodea: 2023DPRE0001
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2024ko Udal Aurrekontua
Hasiera data: 2023/12/12

AURREZKI GARBIA			
Sarrerak 1-5			38.660.303,00
Gastuak 1-5			34.078.319,67
Aurrezki gordina			4.581.983,33
Gastu finantziarioak (3+9)			0,00
Aurrezki garbia			4.581.983,33

Aurrezki garbiak, zama finantzarioa ordaindu ondoren gelditzen den aurrezki gordinaren zatia adierazten du. Udalak, norik bere baliabideekin, inbertsioak finantzatzeko duen ahalmenaren berri ematen digu. Aurrezki garbiak positiboa izan behar du beti; bestela, Diruzaintza-Gerakina negatiboa izango litzateke, edota kapital-sarreraren bitartez ariko lirateke gastu arruntak finantzatzen.

UDALAREN LURZORU-ONDAREA

2024rako proposatutako aurrekontuan lurzoru-ondareari buruzkoak dira:

- Diru sarrerak edo iturriak

600.000.01.00	6	Lur salmentak	1.500.100,00
612.000.00.01	6	Beste salmentak	1.000,00
650.010.00.01	6	Hiritartze kargak	150.000,00
651.010.00.01	6	Hirigintza Probetxamenduak	100.000,00
Sarreretako 1 kap	1	1. kapituluaren %10a	795.800,00
Sarreretako 2 kap	2	2. kapituluaren %10a	100.000,00
		Guztira	2.646.900,00

- Diru sarrera horiekin finantzatu daitezkeen gastuak

Hainbat	601 620 622	Inbertsio errealak lurzorua	4.187.000,00
Hainbat	7	Kapital transferentziak	2.095.177,50



Esp. kodea: 2023DPRE0001
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2024ko Udal Aurrekontua
Hasiera data: 2023/12/12

Sarrerak 7	7	- Kapital transferentziak	-1.751.100,00
Sarrerak 9	9	Finantza pasiboak	-3.750.000,00
		Guztira	781.077,50

EAEko 2/2006 Legeak araututakoa betetzen da.

GIPUZKOAKO TOKI ENTITATEEK JARRAITU BEHARREKO ERREGELAK 2024RAKO AURREKONTUAK PRESTATU, ONARTU ETA GAUZATZEKO ONARTZEN DITUEN JARRAIBIDEARI JARRAITUZ

a) **Aurrekontu egonkortzearen helburua**

1/2013 Foru Arauaren 2.1 artikuluan aurreikusitakoaren arabera, aurrekontuak aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren esparruan egin, onartu eta gauzatuko dira, Europako araudiarekin bat etorriz.

Toki-korporazioentzat, administrazio publikoen sektoreko kide diren aldetik, aurrekontu-egonkortasuntzat hartzen da egiturazko oreka- edo superabit-egoera, eta horrek esan nahi du haien baliabide arruntek eta kapital-baliabide ez-finantzarioek nahikoak izan behar dutela gastu arruntei eta kapital-gastu ez-finantzarioei aurre egiteko.

Hala ere, azaroaren 8ko 3/2022 Foru Dekretu-Arauk, Gipuzkoako toki-erakundeek 2023an aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-jasangarritasunaren arloan aplikatu beharreko arau fiskalak eteteari buruzkoak, 1. artikuluan aurreikusten zuen 2023ko ekitaldirako arau fiskalak etetea, eta honako hau ezartzen zuen: «Aparteko izaerarekin eta 2023rako soilik, etenda deklaritzen dira Gipuzkoako toki-erakundeen arau fiskalak». Horrek esan nahi zuen aurrekontu-egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak indarrrik gabe uzten zituela, eta ez zela gastu-araua aplikatzen urte horretan.

Aurrekontu-egonkortasunari dagokionez, 3/2022 Foru Dekretuaren 2. artikulua adierazten zuenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak udalei berari esleitutako defizit-helburuaren % 40 lagako zien, eta udalen defizit indibidualaren helburua arestian adierazitako defizit globala Udal Finantzaketarako Foru Funtzaren kuoten proportzio berean banatuta zehaztuko da. Arrasateko Udalarik 2023ko ekitaldirako zegoen banakako defizita 323.134 eurokoa zen.

Gaurko egunez, arau fiskalak etenda daude, baina 2024 urterako ez da ezer iragarri horren harira.

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremanetan jarrita, adierazi dute beraiek ere ez dakitela oraindik ere zer gertatuko den; Europa mailan erabaki bat hartzeaz zain daudela eta, ondoren, Estatu mailan hartu beharko dela erabakia, azkenik, Foru Aldundiak hartuko duelarik. Beraz,



Esp. kodea: 2023DPRE0001
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2024ko Udal Aurrekontua
Hasiera data: 2023/12/12

adierazi dutena izan da AURREZKI GARBIA positiboa izatearen baldintza. Gainontzeko arau fiskalen inguruan, gaurko egunez, ez dagoela inongo erabakirik 2024ko aurrekontuetarako. Era berean, 2023. Urtean ez bezala, ez dago erreferentziazko defizitik zehaztuta.

Egonkortasun helburua neurtzeko 1etik 7ra bitarteko kapitulueta sarreren eta 1etik 7ra bitarteko kapitulueta gastuen arteko diferentziaren bitartez egin da.

Kalkulua eginda, aurrekontu proposamen horretan **EZ DA BETETZEN** aurrekontu egonkortasunaren helburua.

AURREKONTU EGONKORTASUNA			
	Sarrera ez finantzarioak (1-7 kapituluak)		41.913.138,68
	Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak)		45.663.138,68
	SEC doikuntzak		0,00
	Finantzaketa ahalmena/premia		-3.750.000,00

Datu hauek ikusita, toki entitate honek ez du betezen aurrekontu egonkortasunaren helburua (nahiz eta etenda egon) ezta ere 2023ko ekitaldirako ezarritako erreferentziazko defizita (nahiz eta 2024 urterako indarrean ez egon). Egoera hau aurrekontuaren likidazioan mantenduko balitz, 6/2021eko FDAren 1.3. artikulua ezartzen duen moduan, derrigortuta legoke plan ekonomiko finantzario bat egin eta onartzea. Plan hori barne kudeaketa tresna eta epe luzerako planifikazio tresna bat izango da, baina haren betetze mailagatik neurri gehigarriak hartzeko obligaziorik ez da egongo.

b) Zor publikoaren helburua.

Zor publikoaren mugari dagokionez, 3/2022 Foru Dekretuaren 1. artikulua ezartzen zuen indarririk gabe utziko zela 2023ko ekitaldirako zor publikoaren helburua, 3/2022 Foru Dekretuaren 2.5 artikuluan hurrengo xedatzen zuen: *“Gipuzkoako toki-erakundeen epe luzeko zorpetzea koherentea izango da ekitaldi bakoitzeko onartutako defizit-helburuarekin”*.

Arrasateko Udalaren 2024ko ekitaldirako aurrekontuak 3.750.000,00 €ko mailegua aurreikusten du.

Hala ere, egoera normal batean egongo bagina eta legeak ezarritako ehunekoa %70 izango litzatekeela, kalkulua eginda aurrekontu proposamen horretan **BETEKO LITZATEKE** zor biziaren helburua



Esp. kodea: 2023DPRE0001
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2024ko Udal Aurrekontua
Hasiera data: 2023/12/12

ZOR BIZIA

Epe luzeko zor bizia (2023/12/31)	0,00
Epe laburreko zor bizia (2023/12/31)	0,00
Zor bizia 2023/12/31	0,00
2024 urtean aurreikusten den mailegua:	3.750.000,00
2024 urtean amortizatuko dena	0,00
	3.750.000,00
2022ko eskubide likidatuak (1- 5 kap.)	37.265.111,31
Zor biziaren %a	10,06%

c) Gastuaren araua.

1/2013 Foru Arauaren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera, “Gipuzkoako toki-erakunde bakoitzeko gastu konputagarriaren aldageta, urte bakoitzeko, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan erabakitakoari egokituko zaio.”

3/2022 Foru Dekretuak lehenengo artikuluan ezartzen zenez, “Gipuzkoako toki-erakundeen arau fiskalak etenda geratzen dira, 2023rako aparteko ondorioekin eta ondorio eskusiboekin. Horrek esan nahi du aurrekontu-egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak indarririk gabe utzi behar direla, eta ez dela gastu-araua aplikatu behar urte borretan.”

Aurreko kasuetan bezala, eta 6/2021 Foru Dekretu-Arauaren 1. Artikuluaren arabera, gastu arauaren erregela bertan behera geratzen da.

2024KO EKITALDIA



Esp. kodea: 2023DPRE0001
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2024ko Udal Aurrekontua
Hasiera data: 2023/12/12

SARRERAK 2024				
Kap.deskr	Kap.	2023 Hasi.aurr	2023 Behin betiko aurrekontua	2024ko aurrekontua
Zuzeneko zergak	1	6.805.000,00	6.805.000,00	7.958.000,00
Zeharkako zergak	2	1.000.000,00	1.000.000,00	1.000.000,00
Tasak eta bestelako zergak	3	8.127.600,00	8.127.600,00	8.617.160,00
Transferentzia arruntak	4	19.532.189,17	19.614.741,50	20.800.433,00
Ondare sarrerak	5	284.210,00	284.210,00	284.710,00
Inbertsio errealak besterang.eta hirigintzatik ondoriozt.beste sarrera batzuk	6	1.751.100,00	1.751.100,00	1.751.100,00
Kapital transferentziak	7	2.066.646,47	2.441.658,42	1.501.735,68
Finantza aktiboak	8	90.000,00	8.754.531,40	90.000,00
Finantza pasiboak	9	0,00	0,00	3.750.000,00
	Guztira	39.656.745,64	48.778.841,32	45.753.138,68

GASTUAK 2024				
Kap.deskr	Kap.	2023 Hasi.aurr	2023 Behin betiko aurrekontua	2024ko aurrekontua
Pertsonal gastuak	1	12.864.902,27	12.974.155,27	13.041.147,63
Ondasunak eta zerbitzuak	2	14.051.252,92	14.936.685,05	15.252.544,14
Interesak	3	25.000,00	25.000,00	25.500,00
Transferentzia arruntak	4	5.179.823,90	5.351.294,99	5.700.564,68
Kreditu globala eta bestelako ustekabeak	5	318.963,14	140.498,75	58.563,22
Inbertsioak	6	6.159.545,00	7.843.286,81	9.061.294,18
Kapital transferentziak	7	967.258,41	1.934.593,10	2.523.524,84
Finantz aktiboen aldaketak	8	90.000,00	90.000,00	90.000,00
Finantz pasiboen aldaketak	9	0,00	0,00	-
	Guztira	39.656.745,64	43.295.513,97	45.753.138,68



Esp. kodea: 2023DPRE0001
Titularra: OGASUN BATZORDEA

Gaia: 2024ko Udal Aurrekontua
Hasiera data: 2023/12/12

Ondorioa:

Arrasateko Udalaren 2024ko ekitaldirako aurrekontu-proiektuak, egonkortze arauari erreparatuz, defizita du, eta zorpetzeari dagokionez, 3.750.000,00 €ko a epe luzeko mailegua aurreikusten du, baina zorpetze araua betetzen du. Gastua % 15,37 handitu da 2023ko hasierako aurreikuspenekin alderatuta (%5,67 behin betiko aurrekontuarekin alderatuta).

Arrasaten, 2023ko abenduaren 12an